

Fermin Artola

KONFINAMENDUAN ZAPOREAK-EKO BOLUNTARIO



GREZIAKO 120.000 ERREFUXIATUAK EUROPAN BANATZEA EZ DA EZER, BAINA EZ DUGU HORI NAHI



Martxoaren 1ean heldu zen Fermin Artola Greziako Lesbos irlara eta egun horretan berean, Moriako errefuxiatuen kanpalekutik janaria banatzetik bueltan zetoze, ultraeskuindarren erasoak jasan zuten. Astebeteren ondoren COVID-19aren krisialdia hasi eta hiru asteko egonaldia lau hilabetekoa bihurtu da.

 REYES ILINTXETA

Iruñeko Udal Ikastola aitzindariaren sortzaileetako bat zara eta maisu onaren ospea duzu. Zer dela eta zure ustez?

Ez dut batere sekreturik. Hori bai, ez dut inoiz arazorik izan ikastolara joateko. Ikasleekin aritzeko lana oso gustukoa nuen. Atal administratiboa eta bilerak, aldiz, ez horrenbeste.

Irakasle gisa lanean nengibilela, Historia ikasi nuen Gasteizen eta aukera izan nuen Bigarren Hezkuntzara pasatzeko. Zalantzan ibili nintzen, baina pentsatu nuen Lehen Hezkuntzan ikasleek oraindik maite gaituztela eta Bigarren Hez-

kuntzan ez nuen horren garbi.

Batzuek diote ikasleen laguna izan behar duzula, baina nik uste dut ezetz. Gu irakasleak gara, baina horrek ez du esan nahi harremanetarako goxotasuna alde batera utzi behar denik. Garrantzitsuena entzutea da. Ikasle bakoitzak badiu bere behar bereziak eta radarra piztuta eduki behar duzu erantzun ahalik eta egokiena emateko. Horrek esan nahi du une batean ikasle baten aldamenean egon behar duzula zerbait azaltzeko edo zerbait hitz egiteko edo eskua bizkarrean jarri eta lasaitzeko, besterik ez. Halako hurbiltasuna behar da.

Asko aldatu da irakaskuntza?

Gizartea da asko aldatu dena eta horrekin batera irakaskuntza. Nik esango nuke zerbait ziklikoa dela. Azkeneko urteetan berrikuntza bezala saltzen zizkituten hainbat elementu orain dela 35 urte jarri ziren martxan. Aldatu dena, batez ere, familiekiko komunikazio mota izan da.

Lehen, ez dakit egoera politikoagatik edo zergatik zen, baina harremana estuagoa zen. Guri laguntzeko prest zeuden. Orain distantzia gero eta handiagoa da. Agian irakaskuntzari eskatzen zaiona gehiegi da. Irakaskuntzak ez du



mundua aldatuko, aldatuko du zerbait, baina denok bat ez bagatoz, ez dugu ezer egingo.

Horretaz gain, esango nuke garai batean egiten genituen gauza batzuk gaur egun astakeriatzat hartuko genituzkeela. Ni joan izan naiz 30 ikaslerekin, motxila hartuta, trenez Uharteraino. Handik San Migelera oinez igo eta bi egunez aterpetxean egon ondoren Iruñera itzuli. Ni bakarrik. Edo Luzaidetik Iparralde osoan barrena Donostiaraino bizikletaz 60 ikasle eta guraso batzuen laguntzarekin, errepide nazional-etik. Gaur egun pentsaezina litzateke, baina beste garaiak ziren.

Erretiroa hartuta, Benidormera joan beharrean, Lesbosera joan zara.

Zergatik?

2018ko udan Sarajevon nengoen eta tren geltokian ikusi nuen boluntario talde bat janaria banatzen errefuxiatu batzuei. Egun horietan iritsi zitzaidan erretiroa

onartzen zidateneko berria eta pentsatu nuen, denbora izanda, horrelako zerbait egiten ahal nuela nik ere. Banekien Zaporeak existitzen zela eta harremanetan jarri nintzen haiekin. Otsailean deitu zidaten eta martxoaren 1ean iritsi nintzen, printzipioz hiru astetako lan txanda egiteko Lesbos uhartera.

Ni izan nintzen hona iritsitako azken boluntarioa koronabirusaren krisialdia sortu baino lehen. Grezia osoa berehala itxi zuten eta gure sukaldarian Zaporeakeko bi boluntario, sukaldaria eta koordinatzailea gelditu ginen. Erabaki zen beste inor gehiago ez etortzea, handik kanpamentura birusa ez ekartzeko. Morian bizi diren errefuxiatu batzuen laguntzaz jarraitu dugu lanean lau hilabete hauetan.

Gogorrena erabateko blokeoaren garaian izan zen: hilabete eta erdiz zazpi pertsonaren artean eguneko 2.200 bazkari ematera iritsi ginen. Lan ikaragarria.

Orain 1.900 ematen ditugu egunean

eta deseskalada ere hasi da, nolabait. Nahiz eta kanpamentua oraindik itxita egon, guretzako kontrolak arinagoak dira orain eta laguntzaileen bila joan gaitzke. Orain berriro hamabost pertsona arteko taldeak ari gara lanean eta eramangarriagoa da dena.

Aukera izan zenuten itzultzeko?

Zaporeak harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzarekin eta Espainiako Enbaxadarekin eta esan ziguten geuk erabakitzeke. Astero baziren enbaxadak antolatutako hegaldiak eta eskaini ere egin zizkiguten, baina etxean itxita egoteko ez zuela itzultzea merezi pentsatu genuen. Zalantza izan genuen, hemen COVID-19a sartuz gero sarraskia brutalak izan zitekeelako, egoera oso gogorra delako, baina hori gertatzekotan zerbait pentsatuko genuen. Suertea izan dugu eta ez naiz damutzen. Hemen oso kasu gutxi izan dira, kanpotik ekarriak eta oso ongi kontrolatuak, antza. Itxura denez Morian ez

Fermin Artola Urmeneta

LAKUNTZA, 1958



Irakasle ikasketak egin ondoren, 20 urterekin hasi zen maisu lanean Iruñeko Udal Ikastolan, sortu berritan. 39 urte eta egun batez aritu ostean, erretiroa hartu zuen duela urte eta erdi pasatxo. Zapo-reak GKEarekin Lesbos uhartera joan zen martxoaren 1ean eta han gelditu da lau hilabete.



da sartu. Batzuek esaten dute agian kasuak ez direla detektatu eta pneumonia normaltzat hartu direla, baina nik uste dut koronabirusa izan balitz ikaragarria zatekeela. Mugarik Gabeko Medikuek ospitale berezi bat zabaldu dute arnasketa arazoak dituzten pertsonak artatzeko, baina oso pertsona gutxi dira hemendik pasa direnak, sei, bost, atzo hiru... Guk kopuru zehatza ezagutzen dugu egunero janaria eramaten diegulako.

Nolakoak dira bizi baldintzak?

3.000 pertsonarentzat prestatuta zegoen kanpalekuan 20.000 inguru bizi dira egun. Txorrota bat dago 1.300 biztanleko eta komun bat 200 pertsonentzat. Xaboirik ez dago. Moira muino batean dagoen esparru oso txikia da, hormaz inguratua. Barruan badira kutxa moduko batzuk, bungalow antzekoak, baina hori luxuzko zerbait da. Gehienak dira dendak edo plastikoz eta egurrezko paletez egindako txabolak. Bakoitzean sei edo zazpi pertsona bizi dira pilatuta. Bideak lurrezkoak dira eta ur beltzak (fekalak) alde guztietatik dabilta.

Kontatzen didate ilundutakoan emakumeak ez direla ausartzen beren

txabolatik ateratzen komunera joateko bortxaketa ugari egiten direlako. Horregatik haurren pixoihalak erabiltzen dituzte. Kanpalekua erabat itxita dago orain. Hirira ezin dira etorri arrazoi zehatz batengatik ez bada: medikura joan behar dutela edo farmaziara, bestela debekatuta daukate handik ateratzea. Eta mantendu horrela 20.000 pertsona! Liskarrak ikaragarriak izaten dira.

Errefuxiatu gutxi batzuek Mitilene hiriburuan pisu bat alokatuta dute, baina hori oso zaila da, jendeak ez die-lako alokatu nahi izaten. Egoera legala ere oso zaila da. Asko el-karrizketa baten zain daude kanporaketa edo asilo egoera ematen ote dieten jakiteko.

Moria bisitatu nuen lehen aldian ikusi nuen jendea noraezean zebilela leku batetik bestera eta "etorkizun beltza" pentsatu nuen. Eguna joan eguna etorri horrela. Ezagutzen ditudan batzuek lau eta bost urte daramate hemen, ez aurrera ez atzera.

Haur eta gaztetxo asko ere bada-go. Guk Mitilenetik gertu dagoen adingabeen zentro batera eramaten dugu janaria. 23 adingabe daude hor kanpin batean, 12-16 urtekoak. Bakarrrik daude eta ez dakigu nola lortu duten



Gogorrena erabateko blokeoaren garaian izan zen: hilabete eta erdiz zazpi pertsonaren artean eguneko 2.200 bazkari ematera iritsi ginen. Lan ikaragarria"



honaino iristea, baina badirudi haiek esperantza gehiago izan dezaketela hemendik ateratzeko. Eta haien artean 4 urteko ume bat dago, familiarik gabe. Harrigarria. Hemengo bizimodua oso latza da haientzat. Duela gutxi 6 urteko neskato bat erreta hil zen Morian bere etxolok su hartu zuenean.

Nolakoa izan zen martxoaren hasieran jasan zenuten ultraeskuindarren erasoa?

Hori izan zen hona iritsitakoan nire lehenbiziko esperientzia. Gero aste normal bat izan genuen eta jarraian koronabirusa. Erasoa azaltzeko gauzak bere tokian jarri behar dira: Lesbos irlak Gipuzkoako tamaina du, 80.000 biztanle eta 20.000 errefuxiatu. Populazioaren bosten bat errefuxiatuak dira, baldintza latz ikaragarrietan bizi direnak. Uharterako presio handia da horri aurre egitea. Zer gertatzen da? Ultraeskuindarrek aprobetxatu egiten dutela jendearen egonezina eta gogor jotzen dutela errefuxiatuen aurka eta baita Gobernuaren Erakundearen kontra ere. Grezian egun bada eskuindarren mugimendu indartsua.

Egun hartan, janaria banatzetik bueltan gentozela, jende talde bat gure furgoneta eta kotxera hurbildu eta oihuka eta kolpeka hasi ziren. Ibilgailuak birrindu zizkiguten. Furgonetan geundenok lortu genuen handik ateratzea, gurpilak zulatuta, baina autokoak aterarazi eta

jipoitu zituzten. Lesbosetik beti izan du tradizioa jendea onartzeko eta laguntzeko. Lehenengo siriarrak iritsi zirenean jendeak denetik ematen zien, baina une honetan kopuruak izugarriak dira eta egoera kontrolaezina. Moriako kanpamentuak duen soluziobide bakarra, nire ustez, ixtea da. Hustu eta itxi. Beste aterabide guztiak adabaki txikiak besterik ez dira.

Zer harreman mota duzue iheslariekin?

Poliki-poliki bazoaz jendea ezagutzen. Badugu errefuxiatu talde bat guri laguntza ematen diguna egunero. Haien bila joaten gara goizero Moriara eta hirira eta sukaldean aritzen dira gurekin egun osoa. Beren bizitza kontatzen digute eta harreman afektiboak sortzen dira. Gure jendea da. Laguntzaileak Moriara bueltan eramaten ditugunean pena izugarria ematen digu han utzi behar izateak.

Zer dute buruan? Alemaniara iristea?

Orokorrean, nik ezagutu ditudan gehienek bai. Baten batek Kanada edo Zeelanda Berria aipatzen ditu edo hotza egiten duen tokiren bat: Islandia, Finlandia... Baina hori oso atipikoa da. Gehienek badute familia, lagunak edo kontaktuak Alemanian. Gainera, badakigu nola saltzen diren askotan gauzak. Hemengoek ikusi dute nola bizi diren bere herriko horiek Alemanian eta nik esango nuke idealizatuta dutela topatuko duten egoe-

ra. Nahiz eta Morian egon, egoera baxi batean, haiek ere badituzte beren ile mozketak bereziak edo arropak, adibidez, eta argazki horiek bidaltzen dizkiete bere senitartekoei Azerbaijanera, Iranera edo Nepalera; baina agian, argazki horietako irudiek ez dute islatzen benetan bizi duten miseria. Europara iritsita, supermerkatu bateko atean dirua eskatzea da etorkizuna? Badakigu zerekin topatuko diren, baina kontuan hartu behar dugu beste egoera askoz txarrago batetik datozela.

Dena den gu ere oso latzak gara. Askotan konturatu edo konturatu gabe keinu xenofoboak izaten ditugu. Pentsa Iruñean zenbat kostatzen den halako pertsonen pisu bat alokatzea.

Europaren errefuxiatuekiko jarrerarikusita, auzo lotsa sentitu duzu inoiz? 42.000 pertsona daude Greziako irltako kanpalekuan eta 120.000 inguru Grezia osoan. Pertsona kopuru hori Europa aberats osoan zehar banatuta ez da ezer. Libanon ehunka mila errefuxiatu daude, askoz txikiagoa izanda ere. Baina europarrok ez dugu hori nahi: "Armeniar eta siriarrak zikin horiek hobe ez badira irla



Azken hitza **EGUNEROKO LANA**

"Guk Morian osasun behar bereziak dituzten pertsonen ematen diegu jaten, 1.000 bat pertsonari. Honetaz gain, eskolara, adingabeen zentrorara eta beste elkartzetara lanak egiten ari diren hainbat boluntariori, ur hornidurarako lanean ari den holandar talde bateko kideei adibidez.

Banaketa tokatzen den egunetan, 9:00etan hasi eta 19:00etan itzuli, bestela 18:00etan.

Oso lan nekagarria da kopuruak itzelak direlako: 200 kilo oilasko zatitu behar dituzu edo zortzi tipula zaku txikitu, 25 kilo txitxirioz betetako lapikoak mugitu eta gero hori dena garbitu... Lan itzela da, baina oso gustura egiten dugu".



horretatik ateratzen". Eta dirua emango diogu Greziari aska ez ditzan.

Auzo lotsa sentitzen dut Europako, Mendebalde osoko politikarien diskurtsoekin. Jendearen jarrera, zorionez, bestelakoa da. Dena den, errefuxiatuena sarraski isila da. Epe motz etaertainean ez du konpontzeko itxurarik. Agian koronabirusak Morian gogor jo izan balu, European kanpalekuetarako konponbide bila hasiko ziren. Baina jendeari bost axola zaio zer gertatzen den hemen. Jendea ez da enteratzen eta ez du enteratu nahi. Siplekeria batzuei

garrantzia ematen diegu eta benetan garrantzia dutenak askotan ahazten ditugu.

Orain arte gaitzak ez du indar handirik izan hemen. Grezian lehenbiziko kasuak agertu zirenetik itxi zuten dena eta norabait joateko baimena eskatu behar zenuen posta elektronikoz. Baiezkoa ematen zizutenean joan zintezkeen lanera, eroatera edota kirola egitera. Lesbosen beldur handirik ez da izan, Atenasen gehiago nabaritu da. Hemen errefuxiatuen esparrua itxi zuten eta kito.

Nola dago orain zuen biltegia?

Ni iritsi nintzenean despentsa goraino bete zagoen, baina dena amaituz joan zen. Ekainaren hasieran kamioia berriro iritsi zen Euskal Herritik, baina sumatu zen itxialdia dela eta janaria biltzeko hainbat ekitaldi bertan behera gelditu zirela. Janari freskoa hemen erosten dugu.

Erabilera bakarreko ontziak erabiltzen dituzue ezinbestean?

Erabateko desastrea da. 1.900 aluminiozko ontzi eta 1.900 plastikozko koi-lara. Atzo iritsi zitzaizkigun metalezko koi-larak eta hemendik aurrera pertsona bakoitzak berea izango du, eta plastikozko gehiago ez dugu erabiliko. Agian plastikozko beste jaki-ontzi mota bat erabil liteke baina ezin ditugu jaso eta, gainera, garbitzeko eta desinfektatzeko modurik ez dugu.

Zer zapore du Moriako janariak?

Goxoa, baina espezia piloarekin: kanela, piper hautsa, currya... Gureak baino gustu indartsuagoak dituzte. Ematen badizkiegu guk Euskal Herrian jaten ditugun barazkiak, adibidez, ez dituzte nahi.

Gure laguntzaileak toki askotakoak dira: Turkmenistangoak, Irangoak, duela gutxi hasi zen Kongoko neska bat... eta guk egiten dugun janari mota nahasketa bat da gehien gustukoa izan dadin eta ahalik eta orekatuena, noski.

Uztailaren hasieran itzuliko zara etxera. Zer egiteko asmoa duzu?

Oso-oso nekatuta nago. Azken egunetan irla ezagutzeko mugituko naiz pixka bat eta gero atsedean hartzera etxera itzuliko naiz. Normalean alde egiten dut beti sanferminetan, baina aurrean geldituko naiz. Denbora pixka bat beharko dut hau dena digeritzeko. ●

AZOKA 2020

EROSI
INTERNETEKO
ARGIAREN
AZOKAN

azoka.argia.eus

943 37 15 45 azoka@argia.eus